

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Irureta Manzidor

*Deba,
Gipuzkoa
(1929-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Lastur bailarako Arbiskoa auzuneko Usarruene baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatan zaharrena. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Arroakoa. Mutikotan Iruerreketa baserrira joaten zen eskolara. Ingurukoak izan zituen maisu-maistrak, baina bederatzi urterekin eskola utzi behar izan zuen artzain lanak egiteko. Lehenbizi etxeko ardiekin eta ondoren beste baserri batzuetan artzain ibili zen, 18 urte ingurura arte. Soldadutzara joan aurretik Loian egin zituen hamar hilabete hango baserri batean, gaztelania ikasteko asmoz, baina bertako familia euskalduna zen eta ez omen zuen askorik ikasi. 21 urterekin Afrikara joan behar izan zuen soldadu, baina bost hilabete besterik ez zituen egin, pleurarekin gaixotu eta, Melillako ospitalean hilabete egin ostean, etxera bidali baitzuten. Lasturko kanteran ibili zen lanean hiru hilabetez eta basoan ere lan egin zuen urtebetez (Txarrantxola baserrian), baina gainontzean beti etxean lan egin izan du. Lasturko Leizaola baserriko Pilarrekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten. Usarruene baserrian bizi izan da beti.

Zintak

DEB-039

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2011-08-02
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

DEB-040

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2011-08-02
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Irureta Manzidor, Joxe Mari | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com